

## INFORMAZIO OHARRA

**'Euskaragaz egizu match' , euskararen inguruko  
estereotipo eta aurreiritzien kontrako ekimena**

*Hilabetez parte hartu dute 16-25 urte arteko gazteek Eusko Ikaskuntzak BBK  
Kunaren kolaborazioarekin bultzatutako esperientzia pilotu honetan*

**Bilbo, 2023ko maiatzak 17.** Gaur, maiatzak 17, arratsaldez egin da *Euskaragaz egizu match* ekimenaren itxiera saioa. Eusko Ikaskuntzak antolatu du eta BBK Kunaren kolaborazioa jaso du. Bilbon egin da hilabetez (apirilaren 19an eta 26an eta maiatzaren 3an eta 9an).

16 eta 25 urte bitarteko gazteek esperientzia pilotu honetan parte hartu dute, estereotipoak eta aurreiritziak ezabatu eta euskara esparru formaletan nahiz informaletan sustatu nahian. Horretarako, lau lantegitan, euskarak bere inguru duen egoeraren diagnostikoa egin dute, galdera hauei erantzunez: zergatik ez dute euskara erabiltzen gazteek eguneroko harremanetan hizkuntzaz duten ezagutza handiaren proportzioan?, zer aurreiritzi eta estereotipo ari dira oztopatzen euskararen garapena?, nola gaindi dezakegu egoera hori?, eta nola imajinatzen du egungo gazteriak euskararen etorkizuna?

Galdera horietatik abiatuta eta tailerretan aktiboki parte hartu ondoren, besteak beste, euskararekiko jarrera aldatzeko borondate argia agertu da. Hala ere, ekainean aurreikusten da Eusko Ikaskuntzak ondorioen berri ematea emaitzen-txosten baten bitartez.

## NOTA INFORMATIVA

**'Euskaragaz egizu match' , iniciativa contra estereotipos y prejuicios en torno al euskera**

*Jóvenes de 16 a 25 años han participado durante un mes en esta experiencia piloto impulsada por Eusko Ikaskuntza con la colaboración de BBK Kuna*

**Bilbao, 17 de mayo de 2023.** Hoy, 17 de mayo, por la tarde ha tenido lugar la sesión de cierre de la iniciativa *Euskaragaz egizu match* que, organizada por Eusko Ikaskuntza y con la colaboración de BBK Kuna, se ha desarrollado en Bilbao a lo largo de un mes (los días 19 y 26 de abril y 3 y 9 de mayo).

Jóvenes de entre 16 y 25 años han participado en esta experiencia piloto que buscaba derribar estereotipos y prejuicios, y fomentar el euskera tanto en ámbitos formales como informales. Para ello, en cuatro talleres han realizado un diagnóstico de la situación del euskera en sus respectivos entornos dando respuesta a preguntas como: ¿por qué los y las jóvenes no utilizan el euskera en sus relaciones cotidianas en proporción al elevado conocimiento que tienen de la lengua?, ¿qué prejuicios y estereotipos están obstaculizando su desarrollo?, ¿cómo podemos superar esta situación?, y ¿cómo imagina la juventud actual el futuro del euskera?

A partir de dichas cuestiones y tras participar activamente en los talleres, entre otras cuestiones, se ha puesto de manifiesto la clara voluntad de cambiar la actitud hacia el euskera. No obstante, en el mes de junio se prevé que Eusko Ikaskuntza dé a conocer las conclusiones en un informe de resultados.